

# elkar

UDABERRIA 2016
43. ZENBAKIA
www.elkar.eus

*Errealitatea eta fikzioa nahasten direnean*

# JOXEAN AGIRRE

+

## JULIA NAVARRO
El poder de las agencias de comunicación

## PETTI & ETXEKO UZTA
Hotzikara: musika barruraino sartu eta fisikoki eragiten dizunean

## IZEN PROPIOAK:
Barbara Goenaga · Iban Zaldua · Julen Ribas · Pako Sudupe · Álvaro Arbina
Unai Villena · Julia Navarro · Castillo Suarez · Pello Añorga · Emily Bone

8435226157962

ARIAN
MÉTODO PARA APRENDER EUSKERA
EUSKARA IKASTEKO METODOA

ARIAN, COMUNÍCATE EN EUSKERA
ARIAN, KOMUNIKA ZAITEZ EUSKARAZ

B2 KALEAN




elkar _Hizkuntzak
www. elkarhizuntzak.eus

elkar

**ALGORTA (GETXO)**
Telletxe 11
94 491 66 16
**ARRASATE**
Erdikokale 14
943 79 78 29
**BAIONA**
Arsenal plaza
559 59 35 14
**BASAURI**
Dr. Jose Garai 11
94 426 13 84
**BERGARA**
Ibargarai 7
943 76 40 50
**BILBO**
Licenciado Poza 14
94 443 47 08
Iparragirre 26
94 424 02 28
Zamudioko ataria
Zazpikale
94 416 14 50
**DONOSTIA**
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80
Fermin Calbeton 30
943 42 26 96
Bergara 6
943 42 63 50
**GASTEIZ**
San Prudencio 7
945 14 45 01
Apraiztarrak 1
Campus
945 14 16 70
**HERNANI**
Kale Nagusia 30
943 55 15 37
**IRUN**
Colon pasealekua 8
943 63 17 26
**IRUÑEA**
Comedias 14
948 22 41 67
Larraona z/g
Golem eraikina
948 17 55 38
**TOLOSA**
Arostegieta z/g
943 67 35 33

# elkar SARIAK

**elkar** Fundazioaren egitekoa euskal kultur industria indartsua eta sendoa eraikitzea da, ziur baikara era horretan bakarrik lor dezakegula euskal kulturak behar duen pisua eta prestigioa izan dezan, lehenik eta behin Euskal Herrian, eta ondoren mundu zabalean. Egiteko horretan, liburua eta musika oinarri dituen industria zabalak egituratzen du **elkar** Taldea, edizioa, banaketa eta salmenta bere baitan dituen eredu propioa euskal kulturaren zerbitzura jarriz.

Era berean, **elkar** Fundazioak ez du bere egitekoa eta funtzioa mugatu nahi bere industria propioa indartzera, haren helburua ere bada euskal kultur industria osoa kontuan hartzea eta haren garapenean laguntzea, gainerako eragileen sendotasunak helburu propioak lortzea ere ekarriko duelako. Zentzu horretan, Joseba Jaka bekak sortzaileei begira dauden gisan, **elkar** sariak jarriko dira abian 2016an sorkuntzari begira. Bi izaerako sariak izango dira: Ibilbideari saria, urtero emango dena eta bere ibilbidean euskal kulturaren alde egindako lana saritu nahi duena; Proiektuari saria, bi urtetik behin emango dena, eta euskal kultur munduan abiatzen edo garatzen ari den proiektu bati emango zaion saria. Urrats berri bat euskal kultura indartzeko bidean.

La principal misión de la Fundación **elkar** es la creación de una industria cultural fuerte y sólida, ya que tenemos la firme convicción de que es la única manera de que la cultura vasca tenga un peso y un prestigio, principalmente en Euskal Herria, pero también en el resto del mundo. Siguiendo esa misión, la actividad del Grupo **elkar** se centra en la amplia industria del libro y el disco, poniendo al servicio de la cultura vasca un modelo propio de edición, venta y distribución.

Al mismo tiempo, la misión de la Fundación **elkar** no se limita a reforzar su propia industria, sino que su objetivo también es tener presente y contribuir en el desarrollo de toda la industria cultural vasca, ya que el crecimiento del resto de agentes culturales también conlleva la consecución de los propios objetivos. En ese sentido, así como las becas Joseba Jaka van dirigidas a los creadores, en 2016 se pondrán en marcha los premios **elkar**, enfocados en la creación. Los mismos tendrán dos vertientes: el premio a la Trayectoria, premio anual que pretende reconocer el trabajo realizado en pro de la cultura vasca, y el premio al Proyecto, premio bianual que busca reconocer proyectos culturales vascos que estén en desarrollo. Un nuevo paso para apoyar la cultura vasca.

## Jarrai gaitzazu sarean! ¡Síguenos en la red!

### POSTDATA bloga

**Ikusiena euskaraz:**
- Jasone Osorori egindako *12etan bermuta* (Elkar) liburuari buruzko elkarrizketa: “Liburuetan ere bilatu izan ditut nire barruan sortzen zen kaosa ordenatzen lagunduko zidaten formulak”.
- Uxue Alberdiri egindako *Besarkada* (Elkar) liburuari buruzko elkarrizketa: “Besarkada bat osatu nahi izan dugu poesiaren eta artearen bidez, samurtasunaren eta fintasun kromatikoaren artean”.

**Lo más leído en castellano:**
- Artículo de Karlos Arguiñano sobre el libro *A mi manera* (Planeta).
- Entrevista a Manuel Rivas sobre el libro *El último día de Terranova* (Alfaguara): “A veces, la vida real es realidad gracias a la imaginación”.
- Antton Valverdek Xabier Leteri buruz idatzitako artikulua.

**Contenido más viral en castellano:**
- Las novedades de la editorial Sua.
- Fotografías de las clases gratuitas de educación artística destinadas a educadores y padres.
- **elkar** ilustrazio eta ipuin lehiaketa abian da.

**Contenidos más interactivos:**
- *Aurri gara* de Izaki Gardenak, el mejor disco de folk y americana nacional de 2015, según Mondosonoro.
- Oskarbi prepara un nuevo disco para celebrar su 50 aniversario.

### FACEBOOK

**Biralitate handiena lortu duten euskarazko sarrerak:**
- 5000 jarraitzaile izatera iritsiko ginela eta, jarraitzaile guztien artean egindako zozketa.

### TWITTER @elkar

**Interakziorik handiena eragin duten euskarazko sarrerak:**
- Miren Garatek irabazi du Tene Mujika Saria *Ekaitzaren zipriztinak* proiektuarekin.

### Orain INSTAGRAM en baita ere

Orain elkar aretoetan gertatzen den guztia gertutik jarraitu dezakezu Instagramen ireki dugun **@elkar_aretoak** kontuari esker. Jarrai gaitzazu!







# JOXEAN AGIRRE

## EROTISMOAREKIKO ETA LITERATURAREKIKO PASIOA

AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: JUANTXO EGAÑA

**Joxean Agirre idazle azpeitiarra (1949) *Gizajoen katalogoa* nobelarekin dator. Azken liburuen estiloari jarraiki eta ironiaz betetako umorea erabiliz, idazleei buruzko literatura egin du bertan. Argumentua norabide anitzetan zabaltzen da hainbat gai eta gertakari aurkeztuz, ia endredoko komedia batean bezala. Idazlearen ofizioa ongi menderatzen duela erakutsiz, eleberrian literaturarekiko pasioa erakusten digu Agirrek.**



**GIZAJOEN KATALOGOA**
Joxean Agirre
ELKAR

**Aurreko *Zwei Frauen* nobela bezala, hau ere geruza askoko liburua da. Oraingoan ere nahikoa egitura bitxia aurkitzen dugu. Nobelan zehar irauten duen argumentu bat badago —narratzaileak irakaslearekin duen harremana eta hark bultzatuta nobela bat idatzi nahia—, baina horrekin batera indarra duten beste gaiak eta protagonistak uneren batean agertu egingo dira —emaztea, alaba, koinata—, eta bigarren partean ia desagertu egingo dira.**

Nire nobela ez da kontakizun lineal eta erraz bat. Ez dut uste institutuetan ikasle guztiek aise irakurriko dutenik, hori badakit.. Liburuan azaltzen diren gai nagusiak, mendekotasuna eta idazleei buruzko literatura dira (azken hau literaturan asko egin den zerbait da, ofizioari buruzko istorio asko dago). Literaturari buruz asko dakien liburu-saltzaileari buruzko istorioarekin abiatzen da liburua; honek nobela bat idatzi nahi du, baina esaldi bat behar du abiatzeko. Berak uste du lehen esaldi hori aurkituz gero eleberri osoa segidan aterako zaiola. Goizero esnatzen da eta zain geratzen da, baina esaldi famatu hori ez da iristen. Bitartean, beste gauza batzuk egiten ditu: hiztegi bat eta gizajoen bilduma.

**Liburuan ez da bizkarrezur oinarrizkorik nagusitzen, agertzen eta desagertzen joaten diren istorio txikiz osaturik dago.**

Istorioak bizkarrezur ahula du, bai. Badago orain berriz itzuli den eta ni beti kontra izan nauen moda bat: istorio handiak eta solemneak behar direla literatura egiteko. Eta nobelan kontrako jarrera dago. Literatura, urrea bezala, pinportetan aurkitzen da eta ez lingoteetan, eta hemen ere ez dago lingoterik, dena dira gauza txikiak, politak; ez dago ezer borobilik edo solemnerik. Badirudi kasu politikorik edo agoniarik gabe ezin dela literaturarik egin, eta hori gezurra da. Hori literatura mota bat da, ez nirea. Ricardo Pigliak esaten du estaturik gabeko territorio bakarra dela literatura, hau da, ez duzula inoren irudirik zaindu beharrik, ez diozula inori ezer zor, muga bakarra da irakurleak ez aspertzea. Hiruzpalau irakurle benetako ezagutzen ditut eta badakit horiek ez ditudala aspertuko, baina besteak ez aspertzen saiatzen naiz.

> “Badirudi kasu politikorik edo agoniarik gabe ezin dela literaturarik egin, eta hori gezurra da. Hori literatura mota bat da, ez nirea”

**Errealitatearen eta fikzioaren artean jolas egiten den bezala, liburuan literatura generoen nahasketa azaltzen da; nobela izanik, hiztegi moduko bat txertatu duzu.**
Norbaitek pentsa dezake orain hibridoak modan daudela eta bide hori jarraitu dudala. Ez da hori. Uste nuen narratzailearen egoerak berak, eleberri bat idatzi nahi eta ezinak, justifikatzen zuela bien bitartean hiztegia egin eta gizajoen bilduma osatzen aritzea. Nahikoa hibridoa da autofikzioa bera, eta hemen asko agertzen da hori.

**Formari begiratuta, metaliteratura lantzen duzu: kontakizun nagusiaren osagarri gisa, literaturako pasadizo bitxiez osaturiko hiztegi moduko bat ere txertatu duzu liburuan, alfabetoaren ordena jarraituta.**
Hiztegiak lan handia eman dit, baina berehala ohartu nintzen osorik sartzen banuen, kontakizuna zapalduko zuela eta ‘e’ letraraino bakarrik sartu dut. Baina ez da nire materiala, besteena baizik; birziklatu egiten dut, ez dut asmatzen. Ez dut orri txuri baten gainean idazten, baizik eta aurrekoek idatzi dutenaren gainean. Hori lehengo bertsolariek egiten zuten ongi, Joxe Agirrek esate baterako, etengabe kontatzen zituen bertsolari zaharragoen kontuak eta pasadizoak esan nahi zutena argitzeko edo dotoretzeko. Hemen horrelako zerbait dago. Izen asko agertzen dira liburuko hiztegian. Irakurtzen dudanean anekdotak eta datuak biltzen joateko ohitura dut, eta horrela atera da hiztegi hau ere.

**Hiztegiaz gain, gizajoen galeria deitu duzun anekdota edo pasadizo bitxi sorta jaso duzu.**
Azken finean liburuaren gaia hori da; narratzailea gizajo bat sentitzen da, ni neu ere halaxe sentitzen naiz. Lehen partean, nik “zirriztuko narratiba” deitzen dudana egin dut, narratzaileak emaztea, alaba eta koinataren arteko harremana zeharkako modu batean jarraitzen du, atearen atzetik zirriztutik behatuz eta entzunez. Narratzaileak entzuten dituen esaldietatik asmatu egiten ditu gauzak, eta bitxia da baina gero hala gertatzen dira. Zergatik du enkantua gutxi entzun eta asmatzeak? Literatura azken finean zer da? Errealitatea zirriztutik begiratzeko modu bat

**Bigarren partean Kirmen Uribe idazlearen lanaren lapurretak hartzen du nobelaren pisua.**
Argitaratu aurretik nobelaren zati hori bidali nion irakur zezan. Kirmen oso gizon eskuzabala da, eta esan zidan harentzat ohore bat zela nire liburuan agertzea. Literatura jolasa da, eta Kirmen nobelan txertatuta horixe egin nahi izan dut, jolastu.

**Autofikzioaren molde muturrekoak praktikatzen dituen pertsonaia ere aurkituko dugu eleberriaren bigarren zatian, poeta gaztea hain zuzen. Autofikzioaren parodia egin duzu.**
Autofikzio muturrekoaren parodia egiten dut, bai, baina aldi berean generoaren elementuak erabiltzen dira: izen errealak (Kirmen Uribe, Joxean Agirre)… Nire asmoa zen protagonisten izenik gabeko nobela bat egitea, eta agertzen ziren lehen izenak errealak izatea. Pertsonaiei izenik ez jartzea ez da alferkeria kontua izan. Nire bizitzan ere arazoak ditut izenekin. Liburuan ere halaxe egin dut: alaba, emaztea, emaztearen ahizpa eta abar; kontaketa oso ondo doa hasieran horrela, kolpetik beste bi izen errealak agertzen diren arte (Kirmen, Agirre).




**Zure literaturako beste osagai klabe bat umorea da, umore mehea, ironiaz betea.**
Hemen ere, bizitzari buruzko sentimendu komiko bat ere badela esan liteke.
Egia da badagoela bizitzari buruzko sentimendu tragiko bat (heriotza…), baina badago baita ere sentimendu komiko bat; bizitzak baditu alderdi komikoak, ludikoak… Liburu honetan komikotasuna tonuan eta ikuspuntuan agertzen dira, baina ez bakarrik gizajoen galeria horretan, baita ere komisarioak egiten dituen informeetan, ama eta alabaren arteko harreman bitxian, eta abar.

**Narratzaileak idazteari beldurra azaltzen du, idazten hasi eta eleberriaren barruan preso geratzekoa. Une jakin batean dio: “idazle baten gaitzik gogorrena ez da gehiago ezin idatzi izatea, utzi egin nahi eta ezin utzi izatea baizik”. Menpekotasun hori ezagutu al duzu zuk?**
Ofizio gehienetan ez dago arazorik lan bat amaitu eta beste batekin hasteko; artisaua saski bat amaitu eta hurrengoarekin has daiteke segidan. Baina idazleen kasuan, nobela bat amaitu eta ez dago pertsona errukigarriagorik idazlea baino, ez duelako inolako ziurtasunik jarraitzeko gai izango den jakiteko. Nik beldur hori lehen ez nuen bizi, orain bai, gero eta gehiago. Oraintxe ez nuke jakingo bizitzen idatzi gabe; idazketa gordeleku bihurtzen da. Nire buruari galdetzen diot: noiz etorriko da une hori, txukun idazteko gai ez izatea? 70 urterekin? Nik uste dut idazle askok arazoak dituztela uzteko. Menpekotasun handia dago, pasio bihurtzen da. Batzuetan, obsesio. Liburuan gai hau landu nahi izan dut.

**Zeure burua ere txertatu duzu eleberriaren bigarren partean. Ez duzu Joxean Agirre idazleari buruzko oso irudi onik erakutsi…**
Adin batetik aurrera autorretratuak egiteko joera areagotu egiten da. Margolariek ere asko erabilitako errekurtso bat da, Rembrandt eta beste hainbat kasu. Nobelan Joxean Agirre sartzea karikatura da, eta karikatura batean alderdi kaxkarrak nabarmentzeko joera dago.

**Argitaletxeen marketin kanpaina agresiboez hitz egiten da. Sistema literarioarekiko begirada zorrotza suma daiteke, sorkuntza bigarren mailan, espektakuluaren menpe utziz.**
Houellebecq-ek adibidez bere buruaren bahiketa antolatu zuen, baita gauzatu ere. Batzuetan pentsatzen dut merkatuak nola funtzionatzen duen ikusita, ikusgarritasuna lortzeko zerbait egin beharko genukeela. Sistema frantsesean, esate baterako, sari bakoitzarekin, eta asko antolatzen dituzte, hautagaiak aukeratu, finalistak ondoren… egunkarietako orrialdeak betetzen dituzte, ia-ia gurean bertsolariekin egiten den moduan. Gurean oharkabean igarotzen dira, ia-ia isilpean.

**KAROLINA SAINZ DE BIKUÑA**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**http://bit.ly/Gizajoen-katalogoa**

Proposamena



**BARBARA GOENAGA**
Actriz

# TAMBIÉN ESTO PASARÁ

Por mucho que otros te cuenten cómo han afrontado la pérdida de un ser querido, la esperanza de un amor derrotado o victorioso, la fortaleza de una amistad o las malas jugadas de la vida, nunca sirve de nada; las experiencias de cada uno son siempre a beneficio de inventario para los demás. Otra cosa son los cuentos que tienen forma de libro y están bien escritos (o muy bien escritos, como es el caso), las historias con regusto amargo, con esa sutil tristeza que se convierte en sonrisa, en esperanza…

Lo mejor que puedo decir de Milena Busquets es que me llevó en volandas, sin respiro y sin levantar la vista a lo largo de las 171 páginas de *También esto pasará*, y le estoy muy, muy agradecida. Quizás esto sea lo mejor que alguien pueda decir de un libro. Pero yo voy a decir algo más.

La pérdida de una madre y el vacío que provoca el enorme agujero de su ausencia, transita con naturalidad y perfecto encaje entre amores acabados y los que aún no terminan de empezar, con un erotismo sutil, con los veranos en familia, con los niños que iluminan las ausencias y con el tiempo que aún nos queda por vivir… Ocupando el mismo espacio sin que sobre ni falte nada. LA VIDA, al fin y al cabo. Y con todo esto, deja entrever lo que yo personalmente también sentí y siento con una perdida así, y es que al final, una de las peores bofetadas que te puede dar la vida, se puede convertir en la mejor enseñanza que puedas tener jamás, y es que NUNCA sabremos hasta cuándo estaremos en este mundo tan loco y divertido. Y como decía Hunter S. Thomspson, "*La vida no debería ser un viaje hacia la tumba con la intención de llegar a salvo con un cuerpo bonito y bien conservado, sino más bien llegar derrapando de lado, entre una nube de humo, completamente desgastado y destrozado, y proclamar en voz alta: ¡Uf! ¡Vaya viajecito!*".




**TAMBIÉN ESTO PASARÁ**
Milena Busquets
ANAGRAMA

Profila RAFAEL CHIRBES



**IBAN ZALDUA**
Idazlea

# TRAIZIOA ETA DESOLAZIOA, NOBELA(K) BIHURTUTA


ARGAZKIA: MARIA TERESA SLANZI

**Rafael Chirbes** nobelagilea zen: ezin saihestuzkoa zuen. Are motzean aritzen zenean —*Mimoun* (1988), *Los disparos del cazador* (1994), *París-Austerlitz* postumoa (2016)— ez zitzaizkion ipuin luzeak ateratzen, nobelak baizik, hain dira bere laburtasunean dentso. Nobelagile klasikoa zen, gainera: XX. mendeko abangoardiek garatutako tresneriari muzin egiten ez bazion ere —*Los viejos amigos* (2003) bezalako lanetan argi dagoen bezala—, haren eredu nagusiak XIX. mendeko nobelagileak ziren, **Flaubert** eta, batez ere, **Pérez Galdós**, bizi izan zuten denborari disekzioa egitera bideratutako literatura baita hala batak nola besteak proposatzen digutena. Haiena bezain zorrotza, nahiz eta agian —are— ilunagoa eta desolatuagoa **Chirbes**ena. Egile valentziarraren gai nagusiak denboraren igarotzea, memoria —historikoa gehitzea erredundantzia da—, gizakiaren bakardadea eta traizioa dira, eta guztiak agertzen dira proportzio desberdinetan nahastuta bere lanetan. **Chirbes**ek oso nobela koralak idatzi zituen, batez ere luze aritu zenean, gerraostetik 1960ko hamarraldira arteko belaunaldi aldaketaren kronika litzatekeen *La larga marcha*n bezala (1996), edo Trantsizio garaian zentratutako *La caída de Madrid* bikainean (2000). Edonola ere, irakurleak **Chirbes**en nobela bakar bat irakurri beharko balu, nik *Crematorio* gomendatuko nioke (2007): badakit begien bistakoena dela, baina nekez idatziko da burbuila ekonomikoaren urteen lilura hutsalaz eta Mediterraneo aldeko diru-jan urbanistikoaz obra lazgarriagorik; ondoren etorri zen *En la orilla* (2013), osteko krisi ekonomiko eta moralari buruzkoa, baina, ona izanik ere, ezin izan zuen *Crematorio* berdindu. Eta haratago iritsi nahiko lukeen irakurleari, nobela labur eta luze guztiez gain, haren saiogintza esploratzeko gonbita luzatuko nioke: nobelagile dotorea izateaz gain, **Chirbes** bazelako, orobat, bere langintzaz sarkor hausnartzen zuen egilea, *El novelista perplejo* bildumak (2002) ederki erakusten duen bezala.

muGa-muGan

# LITERATURA ISPILU aurrean

## Literaturak bizitza ulertzea du helburua, baina porrota du frontisa



**ANJEL LERTXUNDI** IDAZLEA




Muga. Elkarren ondoan dauden bi errealitate bereizten dituen irudizko marra. Mundu errealaren eta subjektibitatearen artean dagoena, adibidez. Nigandik kanpoko eta nire barruko errealitateen artekoa. "Ni naiz munduaren neurria" zioen Arestik, eta nobela modernoan idazlea —artista— kontakizunaren ardatza bihurtu da, idazkuntza bera da kontatzen den abentura nagusia.

Mundua hitzekin esplikatzen dugu, idazleak hitzak ditu lan-tresna, hitzak dira sortzen dituen munduen zutabe. Mundu erreala hitzekin esplikatzen da, fikziozko mundua hitzekin sortzen. Ez da, beraz, hain harrigarria ere idazleak hitzen balioaz jardutea, bere lanaz hitz egitea, mundua nola ikusten duen adierazi nahi izatea, mundua deskubritzeko lana izatea kontagai; ez da hain estrainioa idazle batek bere kezken, arriskuen eta porroten abentura kontatzea.

"*Jadanik* ezin liteke literatura onik existitu, bertan integratua ez badago hausnarketa bat zalantzan jarriko lituzkeena literaturaren bideragarritasuna eta baita literaturaren nozioa bera ere". Letra etzanaz eman dut **Enrique Vila-Matas**en aipuko *jadanik* hitza: gaur —jadanik— ezin liteke literaturarik egin literaturari buruzko hausnarketa bertan integratu gabe. Baina atzo arte, bai. **Goethe**k *Werther* argitaratu arte, nia gustu txarreko exibizio bat zen. Erromantizismoak, ordea, niaren zilborrean jarri zuen arreta, eta laster literaturak arreta horren fruitu goren bat eman zuen **Balzac**en eskutik: *Maisu-lan ezezaguna*. Idazlearen *alter-ego*tzat har daitekeen pintore baten istorioa, haren kezka artistikoak, porrotak kontatzen zaizkigu bertan. Inauguratua gelditu da artegintza bera gaitzat hartzen duen literatura (Círculo de lectores etxeak badu **Balzac**en kontakizunaren edizio eder bat, **Picasso**k ilustratua).

Ordutik, ugaria da literaturaren —eta, oro har, artegintzaren— abentura aldez edo moldez kontatzen duen nobelagintza: **Oscar Wilde**ren *Dorian Grayren erretratua* (Elkar), bizitzaren eta artearen iraungipenaz; **Thomas Mann**en *Herioa Venezian* (Literatura Unibertsala): bertako hausnarketa artistikoek **Gustav Mahler** oroitarazten dute; **Ernesto Sábato**ren *Tunela*-k (Literatura Unibertsala) margolari paranoiko baten istorioa kontatzen du…

Gaurko egunotara etorrita: **Paul Auster**, **Philip Roth** edo **Patrick Modiano**ren nobela askotan idazleak dira memoria osatu eta saretu nahi duten pertsonaiak. **Ramon Saizarbitoria**k Faustino Iturbe idazle neurotikoa asmatu digu *Lili eta biok* nobelan (Erein), *Martutene*-n ageri zen Martin idazlearen bide beretik: bi pertsonaiek egozentrismoaren eta helburu artistiko aseezinen arteko talka bizi dute mundualdiaren azken etapako dekadentzia existentzialean. Gaixo daudelako ez dute idazten, edo idazteko gauza ez direlako daude gaixo? **José Luis Cancho** donostiartuak inspirazioa guztiz agortu zaion idazle baten krisiaren istorioa kontatzen digu *Lento proceso*-n (Papeles mínimos). **Rafael Chirbes** zendu berriaren *Paris-Austerlitz* (Anagrama) nobelak pintore bat du protagonista: bizitza betetzeko ezintasun agonikoak badu bizitza pintatu ezinarekin paralelismorik.

Literaturak mundua ulertzen saiatzea du helburu, baina ezin du guztiz esplikatu, eta literaturaren porrot hori kontatzen digu azken bolada luzeko nobela askok. Idazkuntzaren abenturak porrota du beti kolofoi, porrota da bizitzaren muina ulertzeko ahalegin guztien frontisa. Eta hala ere —edo horregatik— arteak, gizakiok bezala, ezin etsi.

# CATALUÑA y los LIBROS
## UNA LARGA HISTORIA

Barcelona ha sido "la capital de los libros" durante muchos años y actualmente, a pesar de los cambios que ha experimentado el sector editorial, Cataluña conserva su hegemonía.




Ahora que el denominado procés ha situado a Cataluña en primera plana, conviene —aunque solo sea por realizar un ejercicio refrescante— alejar el foco de la arena política y observar la tierra de **Josep Pla** y de **Mercé Rodoreda** desde una perspectiva en la que siempre disfrutó de cierta hegemonía: la del sector editorial. Solo con pronunciar algunos nombres propios repasamos gran parte de la historia cultural de estas últimas décadas. Los fallecidos **Josep Janés**, **Juan Manuel Lara**, **Carlos Barral**, **Esther Tusquets** o **Carmen Ballcels** convirtieron Barcelona en la capital de los libros y editores como **Jorge Herralde** y **Luis Solano** —este último de más reciente incorporación— la mantienen en el centro del mapa editorial.

¿Os imagináis las librerías sin las novedades de Planeta, Seix Barral, Tusquets, Anagrama o Penguin Random House? Pues sabed que todos estos sellos tienen su sede en Cataluña. Además, han surgido otras editoriales como Libros del Asteroide o Acantilado para insuflar nuevos aires al sector. Sellos independientes como L'Altra o Periscopi también han encontrado su hueco en los márgenes del Grup 62, el más potente de cuantos publican en catalán.






Pero la preponderancia catalana, que cuenta entre sus grandes nombres con autores como **Pera Calders**, **Gabriel Ferrater**, **Manuel de Pedrolo**, **María Barbal**, **Carles Riba** o **Marta Pessarrodona**, no se limita solo a la edición sino que muchos de los escritores más leídos en el resto del Estado viven en Cataluña. Echemos un vistazo: **Juan Marsé**, autor de novelas como *Últimas tardes con Teresa* o *Rabos de lagartija*, es una de esas voces insoslayables. Integrante de la Generación de los 50 junto con otros catalanes como **Manuel Vázquez Montalbán** o el magnífico poeta **Jaime Gil de Biedma**, es Premio Nacional de Narrativa y Premio Cervantes. **Eduardo Mendoza**, que ha firmado novelas tan queridas por los lectores como *Sin noticias de Gurb*, *El laberinto de las aceitunas*, o *El misterio de la cripta embrujada*, ha convertido en más de una ocasión a su ciudad natal, Barcelona, en escenario de sus obras. No podía faltar en este repaso **Enrique Vila-Matas** que con libros como *Baterbly y compañía*, *París no se acaba nunca* o *El mal de Montano* ha conseguido significarse como uno de los escritores contemporáneos en lengua castellana más importantes de estos últimos tiempos. Ineludible resulta también citar a **Carlos Ruiz Zafón**. La excelente cuentista **Cristina Fernández Cubas**, autora de *Cosas que ya no existen*, es otro de los nombres propios de la literatura que nos llega desde Cataluña. Hay muchos más: **Milena Busquets** ha tenido un enorme éxito de ventas con *También esto pasará* que escribió a la muerte de su madre, Esther Tusquets. La novela, que arranca y se cierra en un cementerio, habla del dolor de la pérdida, del desgarro de la ausencia. **Quim Monzó** dotó de cierto aliento carveriano a las letras catalanas con trabajos como *Ochenta y seis cuentos* y **Sergi Pàmies**, autor de libros como *La bicicleta estática* o *Si te comes un limón sin hacer muecas* goza de un gran prestigio. Ambos publican tanto con el castellano como con el catalán. De hecho, los escritores más jóvenes escriben a menudo en la lengua de **Ramón Llull** y son traducidos después. Sigamos avanzando.

**Jordi Puntí** y **Vicenç Pagés**, ambos nacidos en la década de los sesenta, son dos escritores con presencia en el mercado catalán y con una destacable proyección. Lo mismo sucede con algunos de los autores que conforman la generación última. Citaremos entre ellos a **Llucia Ramis**, que publicó *Todo lo que una tarde murió con las bicicletas*, *Coses que et passen a Barcelona quan tens 30 anys* o *Egosurfing*; a **Jordi Nopca**, que recientemente se dio a conocer fuera de Cataluña con *Vente a casa*, un trabajo que fue Premio Documenta; y a **Jenn Díaz**, autora de *Es un decir* o *Mare i filla*.

Un último dato: si sois escritores y os van a dan un galardón de postín, seguramente tengáis que sacar un billete a Barcelona. No en vano allí se conceden el Premio Planeta, el Premio Biblioteca Breve, el Premio Nadal y el Premio Herralde, entre otros.

**TXANI RODRIGUEZ**
Escritora






JULEN RIBAS

# LASTER *liburu-dendan...*

**Elkar** argitaletxeak helduentzat ateratako dituen liburu batzuk: **Jon Ariza**ren *Ohe hotzak* nobela eta **Peru Magdalena**ren *Argia* poesia liburua.

La editorial **Txalaparta** prevé publicar en mayo *Centauros del Pirineo*, de **Félix Urabayen**, así como *Mrs. Señora* de **Oier Guillan**.

Entre las novedades que anuncia la editorial **Sua** caben destacar los siguientes títulos: *Nutrición, seguridad y alimentación en la montaña* (de la colección Euskal Herria), *Guía de flores de Euskal Herria* y *Tesoros del Pirineo aragonés*.

**Erein** argitaletxeak aurki plazaratuko ditu honakoak: **David McKee**-ren *Berriz ere Elmer*, **Eneko Aizpurua**ren *Lehertu da festa*, **Jon Arretxe**ren *Los latidos de la tierra* eta **Anjel Lertxundi**ren *Tú, Zu* nobelaren itzulpena.

*Camille* es el título de la nueva novela de **Pierre Lamaitre**, que llegará de la mano de la editorial **Anagrama**. La editorial también avanza la próxima publicación de *El diario de Tita*, de **Laura Esquivel**.

Entre las novedades que anuncia la editorial **Seix Barrall** se encuentra el último libro de **Juan José Millás** *Desde la sombra*, así como *Avenida de los misterios*, de **John Irving**, una novela sobre el destino y la memoria.

**Txertoa** prevé publicar *Conéctate con la naturaleza*, de **Javier Herrero**, *Quién era Ignacio de Loyola*, de **Iñigo Bolinaga**, así como *Pólvora y azafrán*, de **Arantzazu Ametzaga**.

Haur literaturari dagokionez, **Elkar** argitaletxean helduko direnen artean **Paddy Rekalde**ren *Sagarraren misterioa*, **Txiliku**ren *Lehen hegaldia*, **Alaine Agirre**ren *Txokolatezkoa izan nahi nuke*, **Iñaki Arranz**en *Istoriorik gabeko ipuin istorioduna* eta **Ana Jaka**ren *Marimutila naiz eta zer?* daude.

Udaberria girotzeko musikarik ere badakar **Elkar** diskoetxeak. Besteak beste, *Txerokee. Mikel Laboaren kantak* diskoa. Duela 25 urte hainbat talderen ekimenaren ondorioz sortutako diskoa da, **IZ** eta **Elkar**-en eraman zen proiektua, eta garai hartako talde batzuk ageri dira: **Negu Gorriak**, **Delirium Tremens**, **M-ak**, **Sutagar**, **Pottoka**... **Mikel Laboa**ren kantak bertsionatuz. Bestalde, aurten **Xalbador** Urepeleko bertsolaria hil zenetik 40 urte beteko direla eta, berak grabatutako hainbat disko berrargitaratuko dira: udaberrian, *Ifarraldeko kantu zaharrak* izeneko CDa.



# PAKO SUDUPE





**TXILLARDEGIREN BORROKA ABERTZALEA**
Pako Sudupe
ELKAR

Euskal Herriaren azken mende erdi gatazkatsuaren kontakizuna zinez egin nahi duenak **Txillardegi**ren izena behin baino gehiagotan hartu beharko du ahotan edo luman. Bere soslai polifazetikoak bidegurutze askotan ezarri baitu haren itzala. Euskara batuaren nondik norakoak nekez ezagutuko ditugu bere funtsezko ekarpenak aintzat hartu gabe, euskal literatura modernoaren orrialdeetan aitzindari agertuko zaigu, ETAren inguruko mugimendu abertzale berriaren gorabehera politikoetan aztarna sakonak utzi dizkigu, eta abar.

Liburu hauxe da, hain zuen, aztarna politiko horien oihartzun zabal eta oparoa. **Txillardegi**ren pentsamendu politikoa ezagutu nahi duenak badu hemendik aurrera nora jo. Pako Sudupek ezin hobeto atera baitizkio ezpalak donostiar aitzindariaren kultura politiko zabalari.

Beraz, nazionalismo klasikoaren oinarriak kritikatu eta abertzaletasun berriaren formulazio politikoa aurkituko du irakurleak liburu mamitsu honetan. Orobat, euskararen galera larriari aurre egiteko soziolinguistika hasiberriaren printza distiratsuak idoro ditzake. Baita hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko harremanak lotzen dituen hari ezkutuen xehetasun jakingarriak ere. Abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren arteko tirabiren lekuko ere bada liburu hau: izan ere, nazionalismo zaharrak bezala berriak ere herren egiten baitu alderdi horretatik. **Txillardegi**ren koherentzia aparta izan da auzi horretan liburuan jasota geratu den moduan. Irakurtzekoak dira halaber euskalduntasunak klase borrokarekin zeuzkan sokatira bortitzak nola irudikatzen zituen.

Liburu honetako atal nagusi bat izan ere, nazio arazoaren eta klase arazoaren arteko auziak osatzen du. Bi arazo horien arteko etengabeko istiluen lekuko zuzena izan zen **Txillardegi**, lehenik ETAren barruan egon zen bitartean eta gero handik kanpo. Eztabaida ideologiko sutsu haien oihartzunak zehatz-mehatz jaso ditu **Pako Sudupe**ren liburu honek, bateko eta besteko iritzien emaria argiro aurkeztuz eta, batez ere, auzi korapilatsu horretan **Txillardegi**ren tesia luze-zabalean xehatuz. Garai hartan sozialismoaren inguruan nagusi ziren ideia eta erreferentziak modu erakargarrian harilkatuak aurkituko ditu irakurleak.

Liburuaren bigarren partean **Txillardegik** Ekin-etik ETArako bidean egindako hautuen xehetasunak ematen dizkigu **Pako Sudupek**. Militante abertzale gaztearen nondik norakoak, eta baita ETA erakundea uzteko eman zituen arrazoiak ere. Hegoaldera itzuli ondorengo militantzia politikoa ageri zaigu bigarren partearen azken ataletan. Hala, ESB utzi eta HBra jo zuenekoa, HBn izandako erantzukizun eta egitekoak, eta azkenik, Aralar alderdi politikoan izandako esperientziaren berri.

Esandakoa: azken mende erdi zalapartatsuan gertatu zaigunaren kontakizuna ezin da osotara biribildu liburu honetan bildutakoa aintzat hartu gabe.

**JOXE MANUEL ODRIOZOLA**
(Hitzaurrearen egilea)





VUELVE
KAZUMI YUMOTO
La novelista japonesa que escribe sobre la muerte para defender la alegría de vivir
NOCTURNA EDICIONES







-5% Jolas guztietan **elkar** txartelarekin
En todos los juegos con la tarjeta **elkar**

elkar Jolasak




## FILA FILO

DEVIR | *+6 urte*

Los más pequeños vivirán divertidas aventuras en 3D, jugando con animales de 6 y 8 patas.



## NOEREN KUTXAREN ARRASTEA
## ARRASTRE ARCA DE NOE

HAPE | *+1 urte*

Noeren ontzi honetan animalia bakoitza bere zulotik sartu beharko dute haurrek.




## HOVER RACER

4M | *+8 urte*

Jolas dibertigarri honen bitartez zientziaren sekretuak ikasiko ditu haurrak.



## MAGNETIBOOK GRANDE MADEMOISELLE R

JANOD | *+3 urte*

Iman desberdinen bitartez protagonistarentzat mila orrazkera eta janzkera ezberdin sortuko dituzte.



## BRODATZEKO KITA

ALEX | *+ 7 urte*

Kit con todo lo necesario para aprender a bordar.




## OTSOA
## LOBO

MORAPIAF | *+12 urte*

Jolas honetan euren artaldearen artzai izan eta otsoaren aurka borrokatu beharko dute.




## TAMBUZI

HABA | *+6 urte*

Afrikako basoetan eta ekaitz ikaragarrietan murgilduko ditu erreflexu-jolas honek.




## IQ CANDY

SMART GAME | *+5 urte*

Buru-argitasuna eta espazioaren perzepzioa estimulatzen dituen jolasa.



## EDULUDO KIOKOU NATURA

DJECO | *+4 urte*

Los niños aprenderán nociones sobre naturaleza con estas alegres piezas.

**Informazio gehiago: http://bit.ly/jolasak**

# ÁLVARO ARBINA



*“El trabajo creativo no se realiza frente a una mesa, sino que te acompaña a todas partes”*

FOTOGRAFÍA: SARA LARRAURI

**Ha compaginado la carrera de arquitectura con su pasión por escribir. El fruto de su trabajo contiene 700 páginas y una magnífica historia. Se trata de *La mujer del reloj* (Ediciones B, 2016), una novela situada a principios del siglo XIX en Vitoria y la llanada alavesa. La sostiene un contundente argumento en torno a la Guerra de la Independencia, hito histórico que Álvaro Arbina (Vitoria-Gasteiz, 1990) eligió para hilar su ópera prima.**




**LA MUJER DEL RELOJ**
Álvaro Arbina
EDICIONES B

**¿Cuál es el truco para compaginar los estudios de arquitectura con la escritura de un gran libro?**
Estudiaba durante el día, salía a correr al atardecer, respiraba de pensamientos, cenaba, y a la noche, para misterio de mis compañeros de piso, me encerraba en la habitación a escribir. Era una ilusión, un sueño que bullía en mi cabeza, y ese ímpetu me ayudó mucho a introducir la novela en mi día a día, sin perjudicar lo verdaderamente esencial de mi vida. Arquitectura y escritura son más hermanas de lo que parece. Ambas requieren un gran trabajo de creación, de construcción.

**¿Tenías claro que la situaría en Vitoria y la llanada alavesa durante la invasión de Napoleón?**
La idea de situar *La mujer del reloj* a principios del XIX tal vez provenga de las lecturas que más me han marcado. La novela comienza y termina en Vitoria. Y lo hace en dos momentos cruciales: la llegada de los franceses y su expulsión. Es un círculo que se cierra; por un lado, el viaje, y por el otro, la trama y la intriga, esa pregunta que se hace al principio y que no recibe respuesta hasta el final.

**El título incluye a una mujer, y las páginas del libro ceden a las mujeres un espacio importante.**
El título recoge el mensaje final de la novela. Es un símbolo de lo verdaderamente esencial en la vida, esa belleza desapercibida que, a veces, en la vorágine de nuestro día a día, es olvidada. Es un título que recoge, a su vez, esa trama de thriller, de intriga, de ilusionista, de final sorprendente, que contiene la novela. Y por último, es una referencia a la oportunidad perdida de aquellos años. Entonces se dio un espejismo de lo que pudimos llegar a ser: una sociedad más liberal y democrática.

**¿Tienes algo entre manos?**
*La mujer del reloj* ha ocupado un gran espacio en mi mente durante mucho tiempo. Cuando la finalicé sentí que se generaba un vacío, y enseguida comenzaron a surgir nuevas ideas, nuevos personajes y mundos por descubrir. El trabajo creativo no se realiza frente a una mesa, sino que te acompaña a todas partes. Reside ahí, en tu cabeza, conectando tu mente imaginativa con el mundo real, el de la inspiración. Sigo escribiendo y me gustaría poder seguir haciéndolo.

**TERESA SALA**
Periodista

La entrevista completa:
http://bit.ly/La-mujer-del-reloj





# UNAI VILLENA

**Bere lehen liburua kaleratu du Unai Villenak (Elgoibar, 1980) Igartza bekari esker. Nobela sendoa baina arina, intentsitatez beteriko gertakariak kontatzen dituena eta irrikaz irakurtzen dena.**




**HAUTS HAIETATIK**
Unai Villena
ELKAR

**Zer kontatzen du *Hauts haietatik* eleberriak?**
Droga mendekotasuna eta gaixotasun mentala pairatzen dituen 1980an jaiotako Ander izeneko gazte baten historia, bere lagun Oierrek kontatua.

**Zure lehen eleberria izanik, aspaldidanik zeneukan gaia plazaratu duzu bertan, ala idazteko unean parean suertatu zitzaizuna?**
Desintoxikazio-zentro eta psikiatrikoen errealitatea barrutik bizi izan duten pertsonak ezagutzen ditut eta azken urteotan asko hausnarrarazi didan gaia da. Horregatik aukeratu nuen.

## Igartza Sariaren aurreko irabazleak:

**Julen Gabiria** *Connemara gure bihotzetan*
**Xabier Etxeberria** *Egun denak ez dira berdin*
**Jasone Osoro** *Korapiloak* (akzesita)
**Fernando Morillo** *Ortzadarra sutan*
**Unai Elorriaga** *Van`t Hoffen ilea*
**Asel Luzarraga** *Karonte*
**Karmele Jaio** *Amaren eskuak*
**Peru Magdalena** *Lile* (akzesita)
**Uxue Alberdi** *Aulki bat elurretan*
**Jon Martin** *Ero*
**Katixa Agirre** *Habitat*
**Irati Jimenez** *Nora ez dakizun hori* (akzesita)
**Eider Rodriguez** *Katu jendea*
**Uxue Apaolaza** *Mea Culpa*
**Garazi Kamio** *Beste norbaiten zapatak*
**Goiatz Labandibar** *Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak*
**Danele Sarriugarte** *Erraiak*
**Mikel Ayllon** *Ez tiro egin anbulantziei*
**Unai Villena** *Hauts haietatik*
**Kattalin Miner** hurrengo proiektua idazten ari da.

**Ze neurritan da kontaturikoa errealitate eta ze neurritan fikzioa?**
Bi osagaiak ondo nahasita daude nobela osoan zehar eta zailak dira bereizten, baina funtsean fikzioa da.

**Buruz osasuntsu egotea zer den zehazten hasi gabe ere, gaitz mentalaren unibertsoan sartzea erraza da?**
Beste edozein unibertsotan sartzea bezain erraza (edo zaila), nik uste. Izatekotan, zailtasuna gaiari buruz era zintzo eta sinesgarrian idaztean datza, eta duen konplexutasuna islatzean, azalkerian, gehiegikerietan eta topikoetan erori gabe.

**Badago nobelan garai baten eta belaunaldi baten erretratu soziologikoa, ezta?**
Erretratua baino gehiago, bozetoa dela esango nuke. Edo erretratu partzial, labur eta osatugabe bat. Zertzelada batzuk ematen dira, haietatik tira eginda irakurleak falta dena osa dezan.

**Inportantea da nola kontatu gaia ere. Buelta asko eman dizkiozu horri?**
Ia zorabiatzeraino! Ahots ezberdinak, erritmo aldaketak, etengabeko flashback-ak, pertsonaia nagusiaren historia, nobelaren idazketari buruzko istorioa, musika eta poesia nahastu ditut puzzle erako egitura erabiliz. Lanak eman dizkit guztia lotzeak.

**Eta irakurtzeko modu desberdinen kontu hori?**
Nobelaren egiturarekin du zerikusia. Puzzleetan, kaxako azaleko irudiak ematen digu barrukoaren berri, eta gero bakoitzak bere erara muntatzen du. Nik ere irakurleari erabakitzeko eta jolasteko aukera eman nahi nion.

**Lehen liburuaren pausoa emanda, buruan duzu bigarrena?**
Nobela honekiko zeharo ezberdina den zerbait ari naiz idazten. Liburu formatuan eta argitaletxe komertzialen bitartez argitaratzeko modukoa izango den ez dakit, baina idazten jarraituko dudala bai, horretaz erabat ziur nago.

**TERESA LARREA**
Kazetaria

**Elkarrizketa osorik:**
**http://bit.ly/Hauts-haietatik**





# elkar ARETOA

INFO+: WWW.ELKAR.EUS/ARETOA

Agenda osoa eskura:

http://bit.ly/elkar-aretoa

## Apirila / Abril:

**02** – 12:00H:

IRRIEN LAGUNAK KLUBA
www.irrienlagunak.com

**Haur eta Gazte Literaturaren Eguna, Irrien Lagunekin**
Haurrentzako ikuskizuna / Espectáculo infantil:
- **Bilbon:** *Marikalanbre*
- **Donostia:** *Tiritatxo*
- **Iruñea:** *Martinbertso*
- **Gasteiz:** *Largabista*

### Donostia (Fermin Calbeton ):

**05** – 18:30H:

**Troya en las urnas**
*Liburu aurkezpena / Presentación del libro*
*Idazlea: Salvador Robles*

### Iruñea (Comedias 14):

**07** – 17:00H:

**De la ilusión también se vive**
*Ilusionismo ikuskizuna / Espectáculo de ilusionismo*
*Ilusionista: Juan Mortain*

### Gasteiz (San Prudencio 7):

**23** – 12:00H:

**AWKAN. Reincidentes.**
*Solasaldia eta sinaketa / Charla y firma*
*Musikaria: Fernando Madina*

### Bilbo ( Iparragirre 26):

**09** – 12:00H:

**AWKAN. Reincidentes.**
*Solasaldia eta sinaketa / Charla y firma*
*Musikaria: Fernando Madina*

## elkar Loraldian: LORALDIA EUSKAL KULTURA GAUR

www.loraldia.eus

### Bilbo (Licenciado Poza 14) :

**14** – 19:00H:

**7etan ere bermuta**
*Jasone Osoro. Solasaldia eta bermuta*

**15** – 19:00H:

**Babeserako Kopia performance**
*Goizalde Landabaso + Galder Perez + Ane Zabala*

### Bilbo (Zamudioko ataria) :

**21** – 19:00H:

**Atertu arte itxaron**
*Katixa Agirre. Irakurraldi ardoztatua.*

### Bilbo (Iparralde 26) :

**22** – 19:00H:

**Petti & Etxeko Uzta**
*Disko berriaren lagin akustikoa. Estreinaldia*





# CAMINANDO SOBRE EL OCÉANO

## Por los mejores escenarios de la costa de Euskal Herria

Ya quisiéramos, ya, ser capaces de caminar sobre el océano. Pero todavía no, aún no es posible hacerlo literalmente, aunque sí, rizando el rizo sobre esa expresión literaria del titular, hacerlo sobre la tierra que baña el mar. Y eso de caminar por donde el mar suena es toda una experiencia de múltiples emociones sensoriales, porque sentir la tierra bajo los pies mientras se escucha el batir del oleaje y se respira el yodo marino solo puede hacerse de aquel modo: caminando sobre el océano.

Casi sería lo mismo decir que hacemos montañismo en el mar o, jugando a buscar equivalencias, que llevamos la experiencia de las montañas sobre la costa. Esa era una parte de nuestro propósito cuando establecíamos el guión de este libro que nos mueve: experimentar la práctica del caminante pero sin montañas como referencia, convertida ésta en el mar, siempre el mar. Otro de nuestros propósitos ha sido intentar desentrañar y traer a la luz algunos misterios, acaso recontar algunas leyendas o desmontar otras teorías mal defendidas sobre los mundos que se relacionan con nuestro mar, ese viejo Golfo de Bizkaia para los marinos. ¿Por qué hay piedras redondas con agujero en nuestros acantilados? ¿Por qué las mareas esconden o desvelan rocas a capricho? ¿Por qué el sol no sale o se marcha siempre por el mismo horizonte del mar?



Tampoco podríamos haber evitado aproximarnos a excelsos paraísos donde las olas baten a capricho pero también han sido creadoras de paisajes, formas y relieves fantásticos. Por allí van también nuestros caminos costeros, a veces escondidos del mar, otras muy cerca del salitre. Caminamos también por parajes donde algunos privilegiados levantaron mansiones de mirada lejana, donde las voluntades guerreras instalaron defensas o fortificaciones, castillos y trincheras. Claro, en el mar no pueden faltar las referencias de tierra para quienes navegan; están las montañas que los marinos utilizan como señales para moverse sobre el océano y a nosotros nos sirven de tierra para explorar, y están igualmente esas señales luminosas que cobran vida con la noche y nosotros convertimos en aliados de nuestro viaje. ¡Cuantos territorios diferentes para el viaje curioso!

